

**EUSKARAREN ERABILERA
NORMALIZATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA**

BARAKALDOKO UDALA

VI. plangintzaldia (2018 – 2022)

**PLAN ESTRATÉGICO DE NORMALIZACIÓN DEL
USO DEL EUSKERA**

AYUNTAMIENTO DE BARAKALDO

VI período de planificación (2018 – 2022)

AURKIBIDEA / ÍNDICE

0. Sarrera	
Índice	4
I.- Ingurune juridikoa	
Contexto jurídico	6
1. Arautegi orokorra	
Normativa general	7
2. Barakaldoko Udalak hartutako erabaki eta neurriak	
Acuerdos y medidas adoptadas por el Ayto. de Barakaldo	11
II.- VI. plangintzaldiaren ardatzak	
Ejes del VI período de planificación	14
1. Eragin eremua	
Ámbito de aplicación	14
2. Eragin epea	
Período de vigencia	14
3. Xede Nagusia	
Objetivo principal	14
4. Helburu estrategikoak	
Objetivos estratégicos	14
5. Oinarriak	
Principios fundamentales	15
6. Derrigortasun indizea	
Índice de preceptividad.....	16
7. Berariazko hizkuntza-prestakuntza	
Capacitación y formación específica	17
8. Antolakuntza egitura	
Estructura organizativa	17
9. Baliabideak	
Recursos	19
III.- VI. plangintzaldiaren irizpideak	
Criterios del VI período de planificación	21
1. Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak	
Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales	22
2. HE eta DD ezartzeko irizpideak	
Criterios para la asignación de PLs y FPs	38
IV.- Ardatzak, helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak	
Ejes, objetivos, indicadores y actuaciones de normalización	42
1. Planaren ardatzak	
Ejes del plan	43
2. Helburuak, adierazleak eta normalizazio ekintzak	
Objetivos, indicadores y actuaciones de normalización	44

V.- Eranskinak	
Anexos	56
A.- Kudeaketa plana 2018	
Plan de gestión 2018	57
B.- 2018ko kronograma	
Cronograma 2018	64
C.- Udal arloen sailkapena	
Clasificación de las áreas municipales	69

SARRERA

EAEko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legean oinarrituta, Euskara Zerbitzuak “*Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa – VI. plangintzaldia 2018-2022*” dokumentua prestatu du bere onespenerako.

Barakaldoko Udal Batzari dagokio plan estrategiko hau onartzea. Ondoren, udal erakunde autonomoetara bidaliko da, erakunde bakoitzeko gobernu organoak plan honekin bat egiten duen ala ez erabaki dezan. Edozein modutan, erakunde autonomo hauek, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan xedatutakoa kontuan hartuta, euskara, gaztelania bezala, zerbitzu hizkuntza izango dela bermatu beharko dute erakunde osoan; hizkuntza irizpideak aplikatu beharko dituzte eta euskara lan eta erakunde arteko harreman-hizkuntza izan dadin behar beste baliabidez hornitu beharko dira.

Bestalde, zuzenbide pribatuko erakunde publikoei dagokienez, apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak hizkuntza normalkuntzarako neurriak hartzeko beharra aurreikusten du. Honela, aipatu Dekretuaren laugarren xedapen gehigarrian jasotzen denaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak bi hizkuntza ofizialak zerbitzu hizkuntza modura bermatzera behartuta daude eta, ondorioz, helburu hori lortzeko dokumentu honetan jasotzen diren jarraibideak betetzera.

INTRODUCCIÓN

En base al Decreto 86/1997 de 15 de abril que rige el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones locales de la CAV, así como la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, el Servicio de Euskera ha elaborado, para su aprobación, el documento “*Plan Estratégico del Ayuntamiento de Barakaldo para la Normalización del Uso del Euskera - VI período de planificación 2018-2022*”.

La aprobación de este plan estratégico corresponde al Pleno Municipal. Posteriormente, se enviará a los organismos autónomos municipales para que los correspondientes órganos de gobierno decidan si subscriben o no el plan presentado. En cualquier caso, estos organismos autónomos, de acuerdo con lo establecido en el Decreto 86/1997, de 15 de abril, deberán garantizar que el euskera, al igual que el castellano, sea lengua de servicio en todo su organismo, y, así mismo, deberán aplicar los criterios lingüísticos en los diversos ámbitos de actuación y les corresponderá dotarse de los medios pertinentes a fin de que el euskera pueda ser utilizado como lengua de trabajo y de relación entre diversas instituciones.

Por otra parte, en lo concerniente a los organismos públicos regidos por el derecho privado, el Decreto 86/1997, de 15 de abril, prevé la obligación de que los mismos adopten medidas tendentes a la normalización lingüística. Así, según lo establecido en la disposición adicional cuarta del citado Decreto, los organismos públicos de Derecho privado están obligados a garantizar la utilización de ambas lenguas oficiales como lengua de servicio, y, consecuentemente, a cumplir las directrices recogidas en este documento para la consecución de dicho objetivo.

Horrez gain, 123/2008 Dekretuak, uztailaren 1ekoak, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, eta Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua (2003-12-23) garatzen duenak, bere 38. artikuluan, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dutela xedatu eta nola egingo den zehazten du.

Asimismo, el Decreto 123/2008, de 1 de julio, de derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, que desarrolla el Estatuto sobre las personas consumidoras y usuarias (23-11-2003), establece en su artículo 38 que las entidades públicas de derecho privado garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en las relaciones con las personas consumidoras y usuarias, concretando como ha de producirse dicha presencia.

I.- INGURUNE JURIDIKOA

I.- CONTEXTO JURÍDICO

1.- Arautegi orokorra

Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera sustatzeko politikak **Euskararen Erabilera arautzen duen 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean** dauka bere lehendabiziko erreferentzia.

Herri-aginteei dagokielarik, lege horretan xedatzen da herritar guztiek dutela herri-administrazioarekin nahi duten hizkuntza ofizialean harremanak izateko eskubidea. Ondorioz, herri-aginteen betebeharra xedatzen du, eskubide hori muga edo trabarik gabe betetzen dela ziurtatua izan dadin.

Era berean, **Euskal Funtzio Publikoari buruzko 1989ko uztailaren 6ko 6/1989 Legeak** euskal herri-administrazioetako lanpostu zerrendetan jaso behar diren baldintzak eta betebeharrak xedatzen ditu, euskaraz derrigorrean jakin beharreko lanpostuei dagokienez.

Aipatu ditugun lege horietan xedatutakoaren arabera, **Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuak** araubidezko marko orokorra ezartzen du, euskal herri-administrazioek euskararen erabilerearen normalkuntzaren eremuan egin beharreko lanari buruz. Lan horretan bete behar diren gutxieneko baldintzak, plangintza aldiak eta epeak arautzeaz gain, dekretuak bost urtealdirako planak egitea aurreikusten du, plan horietan jaso behar baitira, aldi bakoitzerako, dekretuak xedatzen dituen esparru guztietan aurreikusitako neurriak.

Aurreikuspen horien artean, hizkuntza normalkuntza prozesua abiarazteko oinarrizko tresnatzat jotzen ditu aipatutako dekretuaren 4. artikulua euskararen erabilera normalizatzeko planak. Hain zuzen ere, 18. artikulua dio entitate

1.- Normativa general

La política de promoción del uso del euskera de las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca se enmarca dentro de lo establecido por la **Ley 10/1982 Básica de Normalización del Uso del Euskera, de 24 de noviembre de 1982.**

En lo que a los poderes públicos se refiere, dicha ley establece el derecho de los ciudadanos y ciudadanas a relacionarse con la administración pública en la lengua oficial de su elección. Consiguientemente, establece también las obligaciones que atañen a los poderes públicos para garantizar el ejercicio de tal derecho.

Asimismo, la **Ley 6/1989 de la Función Pública Vasca, de 6 de julio de 1989** establece los requisitos que las relaciones de puestos de trabajo de las administraciones públicas vascas deben recoger, con respecto a la preceptividad del conocimiento de la lengua vasca.

En desarrollo de lo dispuesto en las citadas leyes, el **Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca**, establece el marco reglamentario general en el que debe desarrollarse la actividad de las administraciones públicas en materia de ordenación de la normalización del uso del euskera. Además de los requisitos mínimos, períodos, ritmos y plazos, el decreto prevé elaborar planes quinquenales en los que deben recogerse el conjunto de medidas previstas para la aplicación de lo establecido en el decreto.

Dentro del marco de las medidas previstas, el artículo 4 del citado decreto considera instrumentos esenciales para el desarrollo del proceso de normalización lingüística los planes de normalización del uso del euskera. Concretamente, el artículo 18 dice

bakoitzak 17. artikuluan ezarritako normalizazio helburuak betetzeko erabiliko duen hizkuntza politika, bere nondik norakoak eta jarraibide nagusiak agertuko direla euskararen erabilera planetan.

2003ko abenduaren 23an onetsitako Kontsumitzaile eta erabiltzaileen Estatutuak eta 2008ko uztailaren 1eko Dekretuak, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen hizkuntza eskubideei buruzkoak, kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuei buruzko informazioa euskaraz nahiz gaztelaniaz jasotzeko eskubidea aitortzen die. Ondorioz, erakunde publikoek kontsumitzaile eta erabiltzaileekiko harremanetan bi hizkuntza ofizialak agertzea bermatuko dute.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, hala jasotzen du bere Zioen azalpenean

“...apustu sendoa egiten baitu euskararen iraunarazpen, finkapen eta garapenaren alde, amorez eta euskal toki-administrazioa benetan euskalduna izan ahal dadin, horrek berarekin dakarrekin guztiarekin, hala nola den euskara laneko ohiko hizkuntza izan ahal izatea, euskara jakitea mugatu gabe, askotan gertatzen denez, tokiko enplegu publikora iristeko eskakizun formal huts izatera. Horregatik, toki-administrazioak etsenplu eta gidari izan behar du euskara erabat berreskuratzearen arloan, eta horretarako beharrezkoa da administrazio horrek apustu argi bat egitea bere jarduna gero eta gehiago euskalduntzen joateko.

Horregatik, euskara babestu eta normalizatzeko lana, Euskal Herriaren hizkuntza berezkoa eta komuna denez, lehenik, euskal botere publiko guztiei dagokie, baina euskal udalak bide-erakusle izan behar dira eginkizun horretan. Ondorioz, lege honen asmoa da aitzindari izatea prozesu batean non botere publiko guztiek apustu irmoa egin behar baitute euskararen alde, haren normalizazio

que los planes de Normalización del Uso del Euskera constituyen la formulación de la política lingüística de la entidad en orden al cumplimiento de los objetivos de normalización que se recogen en el artículo 17.

El Estatuto de las personas consumidoras y usuarias, de 23 de diciembre de 2003, así como el Decreto sobre derechos lingüísticos de las personas consumidoras y usuarias, de 1 de julio de 2008, reconocen a dichas personas el derecho a recibir la información relativa a bienes y servicios indistintamente en euskera o en castellano. En consecuencia, los organismos públicos garantizarán la presencia de las dos lenguas oficiales en sus relaciones con las personas consumidoras y usuarias.

La Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, en su Exposición de motivos, recoge

“...una apuesta clara por la preservación, asentamiento y desarrollo del euskera, para que la Administración local vasca pueda ser realmente euskaldun, con todo lo que ello implica; por ejemplo, que el euskera pueda ser su lengua normal de trabajo, y que su conocimiento no se quede, como ocurre en numerosas ocasiones, en una mera exigencia formal para el acceso al empleo público local. En este sentido, la Administración local debe ser ejemplo y guía de su plena recuperación, y ello pasa por la apuesta clara de la misma por una progresiva euskaldunización de su funcionamiento.

Por ello, si bien la preservación y normalización del euskera, la lengua propia y común de Euskal Herria, es una tarea que les corresponde en primer lugar a todos los poderes públicos vascos, los municipios vascos deben ser precursores en esta labor. Y, en consecuencia, esta ley pretende ser pionera en un proceso en el que todos los poderes públicos apuesten aún más decididamente por el euskera, removiendo los obstáculos que impidan o

desiraturia eta erabateko garapena galarazten edo oztopatzen duten trabak erazuz. Hala, lege honek, zeinak uneoro errespetatzen baitu toki-araubidea, aldeztu du, kasuan kasuko toki-erakundeak hala erabakitzen badu, euskara erakunde horretako lan-hizkuntza izatea. Era berean, modu berariazko, funtsezko eta zuzenean aurreikusten du udalek eskumenak edukitzea euskararen erabilerari eta normalizazioari buruzko planen arloan, bai «ad extra», hau da, beraien jardunaren lurralde-eremuan, bai «ad intra», hau da, toki-erakundeetan bertan artikulatzeko antolamendu bakoitzak erabakitzen dituen jasotzaileekin.

Halaber, amorez eta hizkuntza-normalizazioaren prozesuek gainditu dezaten toki-erakundeetan lanpostuetarako hautaketa- edo horniketa-prozesuetan gaitasun hori egiaztatzearen estadia, aurreikusten dira ere zinegotziek hizkuntza-gaitasunak eskuratu eta hobetzeko lagundu dezaketenean neurriak, zeren eta bi errealitateak, bai enplegatuen publikoak dagokiena eta bai politikaren eremuari dagokiona, uztarturik joan behar baitira, euskararen erabileran benetako normalizazioa lortzeko, hau da, esan den bezala euskara laneko ohiko hizkuntza bihurtu dadin euskal toki-erakundeetan.

Alabaina, hori esan ondoren, adierazi behar da ere, alde batetik, euskal toki-administrazioaren euskalduntzearen aldeko apustu irmo horrek ezin dituela inola ere ahaztu herritarren hizkuntza-eskubideak, herritarrek uneoro izango baitute hautatzen duten hizkuntza ofizialean artatuak izateko eskubidea eta bi hizkuntza ofizialetakoren bat ez jakiteagatik inolako babesgabetasunik ez noitzeko eskubidea. Eta beste alde batetik, toki-agintarien jardunak eskatuko du neurri bereziak hartzea euskararen alde, egoera kaxkarragoan dagoen hizkuntza ofiziala baita. Izan ere, euskara faboratzeak bilatzen duena da, hain zuzen, herritarren artean benetako berdintasuna sustatzea, Hizkuntza

difuntzen su deseada normalizazioa eta su pleno desarrollo. Así, esta ley, siempre respetuosa con la autonomía local, favorece, si así lo decide la entidad local correspondiente, que el euskera pueda ser la lengua de trabajo de dicha entidad. Del mismo modo, prevé de manera expresa, clave y directa que los municipios tengan competencias sobre el euskera, en materia de planes de uso y normalización lingüística tanto ad extra, esto es, para su ámbito de actuación territorial, como ad intra, es decir, para su articulación en la propia entidad local con los destinatarios que cada organización determine.

Asimismo, con objeto de que los procesos de normalización lingüística superen el estadio de la acreditación de dicha competencia en los procesos de selección o de provisión de los puestos de trabajo de las entidades locales, también se prevén medidas que puedan favorecer la adquisición y mejora de las competencias lingüísticas de los concejales y concejalas, dado que ambas realidades, la referente a las empleadas y empleados públicos y la que concierne al ámbito de la política, deben ir acompañadas para lograr una verdadera normalización en el uso del euskera, es decir, para que, como ya se ha indicado, esta se convierta en lengua común de trabajo en las entidades locales vascas.

Ahora bien, dicho esto, hay que manifestar también, por un lado, que esta apuesta decidida a favor de la euskaldunización de la Administración local vasca no puede desconocer en ningún caso los derechos lingüísticos de la ciudadanía, que en todo momento tendrá el derecho a ser atendida en la lengua oficial de su elección y a no sufrir indefensión alguna por el desconocimiento de alguna de las dos lenguas oficiales. Y, por otro lado, que la actuación de las autoridades locales exigirá medidas especiales en pro del euskera, que es la lengua oficial cuya situación es más precaria. De hecho, el favorecimiento del euskera busca precisamente promover la igualdad real entre la ciudadanía, en el sentido de lo

Erregionalen edo Gutxituen Europako Kartaren 7.2 artikuluan jasotakoaren zentzuan –karta hori 1992ko azaroaren 5ean onetsi zen Estrasburgon eta indarrean dago gure ordenamendu juridikoan, 2001eko otsailaren 2an berretsia izan ondoren–, non bere helburu eta printzipioen artean esaten duen ezen «hizkuntza erregionalen edo gutxituen alde neurri bereziak hartzea, hizkuntza horien hitzunen eta gainerako biztanleen artean berdintasuna sustatzera zuzenduta daudenak eta beraien egoera berezia kontuan izatea bilatzen dutenak, hori ez da hartuko hizkuntza hedatuagoen hitzunekiko diskriminazio-egintzatzat».

contemplado en el apartado 7.2 de la Carta Europea de las Lenguas Regionales o Minoritarias, hecha en Estrasburgo el 5 de noviembre de 1992 y en vigor en nuestro ordenamiento jurídico tras su ratificación el 2 de febrero de 2001, cuando afirma entre sus objetivos y principios, que «la adopción de medidas especiales a favor de las lenguas regionales o minoritarias, destinadas a promover una igualdad entre los hablantes de dichas lenguas y el resto de la población y orientadas a tener en cuenta sus situaciones peculiares, no se considerará un acto de discriminación con los habitantes de las lenguas más extendidas».

2.- Barakaldoko Udalak euskararen normalizazioa sustatzeko hartutako erabaki eta neurriak.

Barakaldoko Udalak euskararen normalizazioa sustatzeko hainbat erabaki eta neurri hartu ditu:

2.1. Udalaren Osoko Bilkurak 1986ko ekainaren 13an **Barakaldoko Udalaren Araudia, Organoei eta Herritarren Partaidetzari buruzkoa** onetsi zuen. Araudi honen 4. artikulua araberak, *Udalak euskararen erabilera eta normalizazioa ezarriko ditu, euskara Euskal Herriaren kultur-ondarea delako eta, gaztelaniarekin batera, Euskal Autonomia Erkidegoaren hizkuntza ofiziala delako. Udalak, gai horretan, bat egiten du euskarari buruzko legeria bereziarekin.*

Esangura horretan, jendearekin zuzeneko harremanak dituzten bulego guztietan, funtzionario elebidunak izango dira, harreman horietan, ahoz zein idatziz, euskararen erabilera bermatzeko.

2.2. Udalaren Osoko Bilkurak 1988ko otsailaren 25ean, **Euskararen Presentzia Irregulatzeko Arauak** onetsi zituen. Araudi honen bidez, hainbat neurri hartu ziren Udalari lotutako esparru guztietan euskararen presentzia sustatzeko, hala nola, inprimaki mota guztietan euskararen presentzia derrigorrezkoa izatea, euskarari lehentasuna ematea edo argitalpenetan euskarak, gutxienez, %30eko tartea hartzea.

2.3. Euskararen erabilera arautzen duen azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak xedatzen duenari jarraiki, eta Euskararen Normalizaziorako Batzorde Aholkulariak (ENBA) egindako proposamena aintzat

2.- Acuerdos y medidas adoptadas por el Ayuntamiento de Barakaldo en materia de normalización del euskera.

El Ayuntamiento de Barakaldo, en materia de normalización del euskera, ha adoptado una serie de acuerdos y medidas:

2.1. El Ayuntamiento en Pleno, reunido el 13 de junio de 1.986 aprobó el **Reglamento Orgánico y de Participación Ciudadana del Ayuntamiento de Barakaldo**. En base al artículo 4 del precitado Reglamento, *El Ayuntamiento implantará el uso y normalización del euskera, patrimonio cultural del Pueblo Vasco y como idioma de utilización oficial junto con el castellano en el Territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, de conformidad con lo dispuesto en la legislación específica sobre la materia.*

En este sentido, en todas aquellas dependencias que tengan una relación directa con el público existirá un número de funcionarios bilingües suficiente para garantizar el uso del euskera oral o escrito en dichas relaciones.

2.2. El Ayuntamiento en Pleno, reunido el 25 de febrero de 1.988 aprobó las **Normas Regulatoras de la Presencia del Euskera**. Por medio de esta normativa se adoptan una serie de medidas encaminadas a reforzar la presencia del euskera en la vía municipal y en los distintos ámbitos relacionados con ella, tales como, que en todo tipo de impresión será obligatoria la presencia del euskera, que el texto en euskera ocupe un lugar preferente o que en todas las publicaciones el euskera figure, como mínimo, en una proporción del 30%.

2.3. En base a la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, el Ayuntamiento de Barakaldo, a instancias de la propuesta

hartuta, Barakaldoko Udalak 1989ko abenduaren 28an egindako bilkura arruntean **Barakaldoko Udaleko Langileak Euskalduntzeko Behin Behineko Plana** onetsi zuen, oraingo egoeraren oinarriak jarrita.

2.4. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuari jarraiki, Barakaldoko Udalak 2009ko abenduaren 30ean egindako 30/2009 zenbakiko bilkura arruntean IV. Plangintzaldiari zegokion **Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa (2008-2012)** onartu zuen.

2.5. Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua oinarri hartuta eta aurreko planari jarraipena emateko, Barakaldoko Udalak 2013ko urtarrilaren 31n egindako 1/2013 zenbakiko bilkura arruntean **Barakaldoko Udalaren V. Plangintzaldirako (2013-2017) Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa** onartu zuen.

2.6. Une honetan, 2018an, 1997ko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretua zein Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legea aintzat hartuta, **VI. Plangintzaldiari (2018-2022) dagokion Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoa** aurkeztu da.

hecha por la Comisión Informativa de Normalización Lingüística ENBA, aprobó en la sesión plenaria celebrada el 28 de diciembre de 1989 el **Plan Provisional de Euskaldunización del Personal del Ayuntamiento de Barakaldo**, sentando las bases de la situación actual.

2.4. En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca, el Ayuntamiento de Barakaldo en la sesión plenaria 30/2009, celebrada el 30 de diciembre de 2009, aprobó el **Plan Estratégico de Normalización del Uso del euskera del Ayuntamiento de Barakaldo** correspondiente al IV período de planificación (2008-2012).

2.5. En base al Decreto 86/1997, de 15 de abril, por el que se regula el proceso de normalización del uso del euskera en las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma Vasca y como continuación del plan anterior, el Ayuntamiento de Barakaldo en la sesión plenaria 1/2013, celebrada el 31 de enero de 2013, aprobó el **Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo para el V período de planificación (2013-2017)**.

2.6. En estos momentos, en 2018, en base al Decreto 86/1997, de 15 de abril de 1997, así como la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi se presenta el **Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo para el VI período de planificación (2018-2022)**

II.- VI. PLANGINTZALDIAREN ARDATZAK (2018 – 2022)

II.- EJES DEL VI PERÍODO DE PLANIFICACIÓN (2018 – 2022)

1. Eragin eremua

Plan honen eragin eremua Barakaldoko Udala eta bere Erakunde Autonomoak dira.

2. Eragin epea

Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plan Estrategikoaren eragin-aldia plana Barakaldoko Udal Osoko Bilkurak onetsi eta 2022ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

3. Xede nagusia

Plan Estrategiko honen xede nagusia Barakaldoko Udalean hizkuntza ofizialen berdintasunera jotzea da, hau da, euskararen presentzia hutsa bermatzetik haratago joanda, euskara izan dadila zerbitzu-hizkuntza herritarrekin, harreman hizkuntza gainerako administrazioekin eta, hala hautatzen dutenen kasuan, Barakaldoko Udalaren barruko lan-hizkuntza.

Helburua, beraz, bi hizkuntza ofizialen berdintasun formaletik egiazko berdintasuna bermatzera igarotzea izango da, pausoz pauso, herritarren hizkuntza-aukera errespetatuta beti.

4. Helburu estrategikoak

Erabilera plan honek honako helburu estrategiko hauek erdietsi nahi ditu:

- Barakaldoko Udalak herritarrekin dituen harremanetan, ahoz zein idatziz, bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko aukera-berdintasuna bermatzea, hizkuntza bietan eta eremu guztietan kalitatezko zerbitzua eskainita.
- Langileen hizkuntza-gaitasuna handitzea:

1. Ámbito de aplicación

El ámbito de aplicación del presente plan lo constituye el Ayuntamiento de Barakaldo y sus Organismos Autónomos.

2. Período de vigencia

El período de vigencia del Plan Estratégico de Normalización del Uso del Euskera se extenderá desde el momento de su aprobación por el Ayuntamiento en Pleno hasta el 31 de diciembre de 2022.

3. Objetivo Principal

El objetivo principal de este Plan estratégico es tender a la igualdad de las lenguas oficiales en el Ayuntamiento de Barakaldo, es decir, que más allá de la mera garantía de su presencia, el euskera se convierta en lengua de servicio hacia la ciudadanía, lengua relacional con otras administraciones y lengua de trabajo dentro del propio Ayuntamiento de Barakaldo, para todos aquellos que así lo decidan.

El objetivo es, por tanto, pasar de una equiparación formal entre las dos lenguas oficiales a una igualdad real, paso a paso, respetando siempre la elección lingüística de la ciudadanía.

4. Objetivos estratégicos

El presente plan de uso tiende a conseguir los siguientes objetivos estratégicos:

- Garantizar la igualdad de oportunidades en el uso de las dos lenguas oficiales, tanto de modo oral como escrito, en las relaciones del Ayuntamiento de Barakaldo con la ciudadanía, ofertando en ambas lenguas un servicio de calidad en todos los ámbitos.
- Aumentar la capacitación lingüística del personal:

- Euskararen ahozko erabilera areagotzea.
- Euskararen idatziko erabilera areagotzea, langileen trebakuntzari lehentasuna emanaz.
- Incrementar el uso hablado del euskera.
- Incrementar el uso escrito del euskera, priorizando la formación del personal municipal.
- Euskararen erabilera planaren zeharkakotasuna bermatzea eta udal langileen eta arduradun politikoen erabilera planarekiko konpromisoa eta inplikazioa lortzea.
- Garantizar la transversalidad del plan de uso del euskera, así como la implicación y compromiso de los y las trabajadores municipales y responsables políticos hacia el mismo.
- Herritarrak ahalduntzea euren hizkuntza eskubideen jabe izan daitezen.
- Empoderar a la ciudadanía, en ambas lenguas (euskera y castellano) para que sean conscientes de sus derechos lingüísticos.

5. Oinarriak

Hiru izango dira erabilera planaren oinarri nagusiak:

- Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatu behar ditu Administrazioak. Hori lortze aldera, bereziki zainduko du herritarrari lehen harrera euskaraz egitea, hari inolako deserosotasunik eragin gabe.
- Halaber, erabilera plan honen zutabe eta jarraibide nagusia Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak izango dira.
- Langileen eta arduradun politikoen trebakuntza lehenetsiko da erabilera plan honetan, horixe izango baita benetako tresna edo bitartekoa euskararen ezagutzatik erabilerara jauzia egiteko.

5. Principios fundamentales

Tres serán los principios fundamentales de este plan de uso:

- La Administración debe garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía. Para lograr este objetivo, debe propiciar que la primera atención a los ciudadanos se realice en euskera, sin crearles ningún tipo de incomodidad.
- Igualmente, los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales habrán de ser el soporte y guía fundamental del presente plan de uso.
- En este plan de uso se priorizará la capacitación del personal municipal y representantes políticos, ya que éste se conformará como el verdadero instrumento que permitirá dar el salto del conocimiento del euskera a su uso real.

6. Derrigortasun indizea

86/1997ko Dekretuaren 17. artikulua herri administrazioek gutxienez bete beharreko helburuak ezartzen ditu, erakundeak nahitaez bete beharreko indizearen bitartez. Indize hori Erroldako eta Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikako datu soziolinguistikoen arabera zehazten da honako formula honen bidez:

Euskaldunak + (1a Euskaldunak/2)

VI. plangintzaldi honetan, Barakaldoko Udalak bete beharreko indizea %35,74koa da, 2016an Eustatek argitaratutako azken errolda edo biztanleria eta etxebizitza datuen arabera.

Erakundeak derrigorrez bete beharreko indizea [%25 - %45] tartekoa denean, Barakaldoko Udalaren kasua, honako helburuak izango ditu derrigorrean:

- Administratuari zerbitzua euskaraz eskaintzea bai ahoz, bai idatziz eta, horretarako, **jendaurreko administrazio atal elebidunak** ezartzea.
- **Gazteriarekin** harreman zuzena eta ohikoa duten ataletan **administrazio atal elebidunak** ezartzea.
- **Gizarte izaerako ataletan administrazio atal elebidunak** ezartzea.

Plan honen ondorioetarako, administrazio-atl elebidunak, 86/1997 Dekretuak ematen duen definizioari jarraituz, euren zereginak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetatik edozeinetan, batean zein bestean, betetzen dituzten administrazio atalak dira.

6. Índice de preceptividad

El Decreto 86/1997, en su artículo 17, establece los objetivos mínimos que las entidades deberán alcanzar, por medio de un índice de obligado cumplimiento. Este índice viene determinado por los datos sociolingüísticos de población recogidos en el Censo o Estadística de Población y Vivienda y se establece de la siguiente manera:

Euskaldunes + (Cuasi Euskaldunes/2)

El índice de obligado cumplimiento del Ayuntamiento de Barakaldo en este VI período de planificación será del 35,74%, en base a los últimos datos de censo o estadística de población publicados por Eustat en el año 2016.

Cuando el índice de obligado cumplimiento de la entidad sea de entre un [25% - 45%], caso del Ayuntamiento de Barakaldo, deberán establecerse, necesariamente, los siguientes objetivos:

- Garantizar la atención en euskera al administrado, tanto oralmente como por escrito, y para ello se establecerán **unidades bilingües en las unidades administrativas de atención al público**.
- Establecer **unidades administrativas bilingües** en todas aquellas unidades que tengan contacto directo y habitual con la **juventud**.
- Designar **unidades administrativas bilingües en las unidades de carácter social**.

A efectos de este Plan, son unidades bilingües, a tenor de la definición dada en el Decreto 86/1997, aquellas unidades administrativas que desempeñan las funciones propias de las mismas indistintamente en cualquiera de las dos lenguas oficiales de la Comunidad Autónoma Vasca.

7. Berariazko hizkuntza-prestakuntza

Administrazioko langile askok hizkuntza gaitasun jakin bat eskuratu dute. Alde horretatik, hizkuntza eskakizuna egiaztatu izanak langilearen gaitasuna ziurtatzen du; nolana ere, badira beste hainbat eragile aintzat hartu beharrekoak: zenbat denbora igaro den hizkuntza eskakizuna egiaztatu zuenetik orain arte; zenbateraino erabili duen euskara tarte horretan, langilearen atxikimendua hizkuntzarekiko, euskara erabiltzeko motibazioa...

Arrazoi bat edo bestea dela, gerta daiteke zenbait langile, euskaraz jakin arren, gauza ez izatea beren lanpostuei dagozkien funtzio espezifikoak euskaraz egiteko.

Eta horretara dator, hain zuzen ere, berariazko hizkuntza prestakuntza, ezagutza orokorretik laneko eguneroko errealitatera jauzi egiten laguntzeko. Azken finean, ezin da ahaztu langilea prestatu behar dugula ez euskara gehiago jakiteko, baizik eta euskaraz lan espezifiko bat egiteko.

Horrela izanik berariazko prestakuntzak epe mugatua izango du: langileak komunikazioak euskaraz egiteko laguntza behar duenean hasi eta funtzio horiek euskaraz eroso burutzeko gauza denean bukatuko da.

8.- Antolakuntza-egitura

VI. plangintzaldiak jasotzen duena garatzeko eta inplementatzeko langileen ordezkariarekin batera ondoko antolakuntza-egitura osatuko da:

Euskararen Normalizaziorako Batzorde Aholkularia (ENBA)

7. Formación lingüística específica

Muchos/as trabajadores/as de la Administración han adquirido una determinada capacitación lingüística. En este sentido, el hecho de haber acreditado el perfil lingüístico correspondiente certifica la capacitación del trabajador/a; no obstante, deben tenerse en cuenta otro tipo de condicionantes: cuánto tiempo ha transcurrido desde la acreditación del perfil, cuánto se ha utilizado el euskera durante ese período, la identificación del trabajador/a con la lengua, su motivación para expresarse en euskera, etc.

Sea por una u otra razón puede suceder que algunos/as trabajadores/as, aun sabiendo euskera, no sean capaces de desempeñar en esta lengua funciones específicas que requieren sus puestos.

Este es, en efecto, el objetivo de la formación lingüística específica: ayudar a dar el salto del conocimiento general a la realidad del trabajo cotidiano. No puede olvidarse que el objetivo principal es formar al trabajador, no para que aprenda más euskera sino para que desarrolle ciertas funciones específicas en este idioma.

El período de formación tendrá una duración limitada: comenzará en el momento en que se detecte que alguien necesita ayuda para llevar a cabo sus comunicaciones en euskera, y terminará cuando sea capaz de realizarlas con facilidad.

8.- Estructura organizativa

Se creará la siguiente estructura organizativa para el desarrollo e implementación de lo establecido en el VI período de planificación con la representación de los trabajadores y trabajadoras municipales.

Comisión Informativa de Normalización Lingüística (ENBA)

Batzorde hau, dagoeneko eratuta, unean une Euskara arloaren eskuduntza duen zinegotzi ordezkariak deituta, gutxienez, sei hilabetean behin bilduko da eta honako eskumen hauek izango ditu:

- Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Barakaldoko Udalaren derrigortasun indizea betetzeko erakundeak ezarri beharreko derrigorrezko hizkuntza eskakizunen kudeaketa eta jarraipena egitea.
- Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari derrigortasun-data berriak jartzeko proposamena egitea.
- Barakaldoko Udalaren lanpostu zerrendan euskararen bermea dela eta, sor litekeen edozer kudeatzea.

Euskararen erabilera planaren jarraipena egiteko lan-taldea

Barakaldoko Udalaren 2013-2017ko erabilera planaren amaierako ebaluazioa eta egoeraren diagnostika egiteko 2017ko abenduan sortu zen lan-talde bera aprobetxatu eta berau zabaltzeko proposamena egingo da. Izan ere, euskararen erabilera planaren zeharkakotasuna erdietsi aldera, komenigarria litzateke lan-talde honetan, Barakaldoko Udalbatza osatzen duten alderdi politiko guztien ordezkariak eta udal arlo eta departamentu esanguratsu guztien ordezkariak egotea.

Lan-talde honen hizkuntza euskara izango da; hortaz, kideren batek euskaraz jakingo ez balu, bitartekoak jarriko dira lan-hizkuntza eragozpena izan ez dadin.

Esta Comisión, ya constituida, se reunirá a convocatoria del concejal/a delegado/a que ostente en ese momento la competencia del área de Euskera, como mínimo, una vez al semestre, con las siguientes funciones:

- Realizar el seguimiento y evaluación del Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo.
- Realizar las gestiones y seguimiento necesarios en todo lo referente a los perfiles lingüísticos preceptivos que ha de establecer la entidad con el fin de cumplir el índice de preceptividad correspondiente.
- Proponer a la Viceconsejería de Política Lingüística de Gobierno Vasco nuevas fechas de preceptividad.
- Gestión de todo lo referente a la garantía del euskera en la RPT del Ayuntamiento de Barakaldo.

Grupo de trabajo para el seguimiento del plan de uso del euskera

Se propone aprovechar e incluso ampliar el grupo de trabajo creado el pasado mes de diciembre de 2017 con objeto de realizar la evaluación final del plan de uso del euskera del Ayuntamiento de Barakaldo correspondiente al período 2013-2017. De hecho, de cara a conseguir la transversalidad del plan de uso, sería conveniente la participación en dicho foro de representantes de todos los grupos políticos que conforman el Pleno del Ayuntamiento de Barakaldo, así como representantes de todas las áreas municipales y departamentos significativos.

La lengua vehicular de este grupo de trabajo será el euskera, por lo que si algún miembro lo desconociese, se dispondrán los medios necesarios para que el idioma no constituya ninguna barrera.

Lan-taldearen funtzioak honako hauek izango dira:

- Barakaldoko Udalaren Euskararen Erabilera Normalizatzeko planaren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Beharrezko egokitzapenak proposatzea urteko helburu orokorretan, zehatzetan, estrategietan eta ekintza planean.
- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzeko sor litezkeen oztopoak detektatzea eta aztertzea.
- Udal langile eta arduradun politikoen trebakuntza estrategia eraginkorrek definitzea eta inplementatzea.
- Herritarrak ahalduntzeko estrategiak definitzea eta inplementatzea

9.- Baliabideak

Euskararen Erabilera Planak aurrera egin dezan, beharrezkoak izango dira giza baliabideak eta baliabide materialak:

- *Euskara zerbitzuko langileak*

Euskara teknikariaren zereginak honako hauek izango dira, besteak beste: egitasmoaren diseinua proposatzea, berau betetzeko normalizazio ekintzak proposatzea, egitasmoa betetzeko hizkuntzari lotutako aholkularitza eta laguntza ematea eta, ebaluaketa egiteko metodologia proposatzea.

Plangintzaldi honetan ahalegin bat egin beharko litzateke Euskara zerbitzuaren giza baliabideak handitzeko; izan ere, hizkuntza normalkuntza tekniko bakar bat ez da nahikoa Barakaldoko Udala bezalako erakunde batek dituen beharrei behar den moduan erantzuteko.

El grupo de trabajo tendrá asignadas las siguientes funciones:

- Realizar el seguimiento y evaluación del Plan de Normalización del Uso del Euskera del Ayuntamiento de Barakaldo.
- Proponer los ajustes necesarios en los objetivos generales, específicos, estrategias y plan de acción anual.
- Detectar y analizar las dificultades que pudieran surgir a la hora de cumplir los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales.
- Definir e implementar estrategias eficaces de formación lingüística destinadas a personal municipal y representantes políticos.
- Definir e implementar estrategias de empoderamiento de la ciudadanía.

9.- Recursos

Será necesario dotarse de una serie de recursos humanos y materiales para llevar a cabo el Plan de Uso del Euskera:

- *Personal del Servicio de euskera*

Las funciones del / de la técnico de euskera serán, entre otras: proponer el diseño del plan, proponer actuaciones de normalización para su desarrollo, ofrecer asesoría y asistencia lingüística en relación con el desarrollo del plan, proponer metodología para realizar la evaluación.

A lo largo de este período de planificación se debería hacer un esfuerzo por ampliar los recursos humanos del Servicio de euskera, ya que un único técnico de normalización lingüística no resulta suficiente para responder a las necesidades de una entidad como el Ayuntamiento de Barakaldo.

- **Giza Baliabideen arloko zerbitzuburuarekiko elkarlana**, Lanpostu Zerrendari eta hizkuntz eskakizunei (derrigortasun datak...) dagokien guztia kudeatu ahal izateko.

- **Itzulpen zerbitzuko langileak**. Hauen funtzioak, besteak beste, honako hauek izango dira: erabilera planean ezarritako Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideetatik eratorritako itzulpen beharrei erantzutea eta euskarazko idatzizko zerbitzuen kalitatea bermatzea.

Baliabide materialei dagokienez, VI. plangintzaldiari dagokion aurrekontu-ekitaldi bakoitzean, Euskara zerbitzuak diru partida bat izango du urte horretan aurreikusten diren normalizazio ekintzak gauzatzeko.

Halaber, itzulpen zerbitzuek berriazko diru partida bat izango dute, lan-karga dela-eta, Udalak beharrezko duen itzulpen-lanari eutsi ezin dioten uneetan kanpoko laguntza kontratatatu ahal izateko.

- **Estrecha colaboración con el/la jefe/a de servicio del área de Recursos Humanos** para poder gestionar todo lo relacionado con la Relación de Puestos de Trabajo y perfiles lingüísticos (fechas de preceptividad...).

- **Personal del servicio de traducción**, cuyas funciones, entre otras, serán responder a las necesidades de traducción derivadas de los Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales establecidos en este plan de uso del euskera, así como garantizar la calidad del servicio ofertado en euskera por escrito.

En lo referente a los **recursos materiales**, el Servicio de euskera dispondrá de una partida en cada ejercicio presupuestario correspondiente al VI. período de planificación para llevar a cabo las actuaciones de normalización que se prevean para dicho ejercicio.

Asimismo se destinará una partida específica a los servicios de traducción, de tal manera que en aquellos momentos puntuales en que resulte imposible abarcar todo el trabajo de traducción requerido, se pueda contratar una ayuda externa.

III.- VI. PLANGINTZALDIAREN IRIZPIDEAK

III.- CRITERIOS DEL VI. PERÍODO DE PLANIFICACIÓN

1.- Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak

Barakaldoko Udaleko langile ugari dute egiaztatuta dagokien hizkuntza eskakizuna eta hortaz, euskaraz lan egiteko gaitasuna izan beharko lukete; dena dela, ukaezina da urte luzeetako inertziaren ondorioz edo, eremu gehienetan, oraindik orain, gaztelania dela lan-hizkuntza nagusia. Agerikoa da, beraz, Barakaldoko Udala benetan elebiduna izango bada, bi hizkuntza ofizialak orekaz eta berdintasunez erabili behar dituela.

Giltzarria, pixkanaka-pixkanaka, ezagupenetik erabilerarako jauzia egitean datza, benetan egin daitekeena baino gehiago eskatu gabe, baina egin daitekeen guztia eginez. Eta horretarako ezinbesteko baliabide izango dira **Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak**, planaren helmuga eta pausoak zedarrituko baitituzte.

Halaber, ezinbestekoa izango da euskararen eta erabilera planaren aldeko sinergiak lortzea, alegia, Barakaldoko Udalaren eragile guztiak –langileak zein arduradun politikoak- motibatzea eta euskararen aldeko normalizazio ekintzetan inplikatzeko.

1. artikulua.- Eragin-eremua

Barakaldoko Udalaren arlo guztiek, Erakunde Autonomoak barne, ezinbestean bete beharko dituzte arau hauek.

2. artikulua.- Zerbitzu-hizkuntza, harreman-hizkuntza, lan-hizkuntza

Euskara eta gaztelania zerbitzu-hizkuntza dira herritarrekiko, harreman-hizkuntza beste administrazio batzuekiko, eta lan-hizkuntza.

1.- Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales

Son muchas los/as empleados/as del Ayuntamiento de Barakaldo que han acreditado el perfil correspondiente y consecuentemente estarían capacitados para trabajar en euskera; no obstante, como consecuencia de la inercia adquirida a lo largo de los años, es indudable que en la mayoría de los ámbitos la lengua de trabajo predominante sigue siendo el castellano. Para que el Ayuntamiento de Barakaldo sea realmente bilingüe, debemos utilizar nuestras dos lenguas oficiales de modo equilibrado e igualitario.

La clave reside, por lo tanto, en pasar paulatinamente del conocimiento al uso, sin exigir más de lo que efectivamente se pueda realizar, pero haciendo todo lo posible. Para ello los **Criterios de Uso de las Lenguas Oficiales** jugarán un papel importante, pues delimitan los objetivos a cumplir y los pasos a realizar.

Asimismo, será imprescindible lograr sinergias en favor del euskera y del propio plan de uso, de tal manera que seamos capaces de motivar e implicar en las acciones de normalización a todos los agentes –personal y representantes políticos- del Ayuntamiento de Barakaldo.

Artículo 1.- Ámbito de aplicación

Estos criterios son de obligado cumplimiento para todas las áreas del Ayuntamiento de Barakaldo y sus Organismos Autónomos.

Artículo 2.- Lengua de servicio, lengua de relación y lengua de trabajo

El euskera y el castellano son lenguas de servicio a la ciudadanía, lenguas de relación con otras administraciones y lenguas de trabajo.

3. artikulua.- Barakaldoko Udala hizkuntza normalkuntzan eredugarri

Gaztelania eta euskara, biak, Barakaldoko Udaleko hizkuntza ofizialak izan arren, agerikoa da lehenengoaren nagusitasuna Barakaldoko Udalaren gaur egungo komunikazioetan.

Egoera hori orekatu nahian, Barakaldoko Udalak berebiziko ahalegina egin beharko du langileak gaitzeko eta erakundean euskararen erabilera sustatzeko, beti ere erabilera planean adostutakoa kontuan harturik.

Era berean, beste urrats bat eman beharko luke, alegia, euskararen aldeko jarrera proaktiboa hartzea, eredugarri jokatzea eta bere baliabideak aintzat hartuta, gonbitea egitea administratuei, hauek hala nahi badute, Barakaldoko Udalarekiko harremanetan euskara erabiltzeko.

4. artikulua.- Kalitatezko komunikazioak

Kalitatezko zerbitzua eskaini behar da euskaraz ere Barakaldoko Udalean, hau da, euskarazko komunikazio zuzenak, egokiak eta argiak:

- Helburua komunikatzea da; hori dela eta, hartzailleak lehen entzunaldi edo irakurraldian arazo barik ulertu beharko du komunikazioa.
- Komunikazioak zuzenak izango dira.
- Hizkuntza bakoitzaren berezko moldeak edo esateko era errespetatuko da.

5. artikulua.- Komunikazio elebidunetan euskara nabarmentzeko neurriak

Euskararen egoera soziolinguistikoa kontuan izanik, behar beste neurri hartuko dira euskara nabarmentzeko:

Artículo 3.- El Ayuntamiento de Barakaldo, modelo en la normalización lingüística

Pese a que el castellano y el euskera son ambas lenguas oficiales del Ayuntamiento de Barakaldo, es obvia la primacía de la primera en las comunicaciones actuales del Ayuntamiento de Barakaldo.

Con objeto de equilibrar la situación el Ayuntamiento de Barakaldo ha de realizar un esfuerzo importante para capacitar al personal y fomentar el uso del euskera en la entidad, tomando en consideración, en todo caso, lo acordado en el plan de uso.

Igualmente, debería dar un paso más, adoptando una actitud proactiva al euskera, dando ejemplo y, en función de sus recursos, invitando a todos los administrados a comunicarse en euskera con el Ayuntamiento de Barakaldo, siempre que así lo deseen.

Artículo 4.- Comunicaciones de calidad

Se deberán ofertar, también en euskera, un servicio de calidad en el Ayuntamiento de Barakaldo; es decir, comunicaciones correctas, adecuadas y claras:

- El objetivo es la comunicación, por lo que el receptor deberá entender la comunicación, sin esfuerzo, en la primera lectura o escucha.
- Los textos deben ser correctos.
- Se respetarán las estructuras o modos de expresión propios de cada lengua.

Artículo 5.- Medidas para destacar el euskera en las comunicaciones bilingües

Teniendo en cuenta la coyuntura sociolingüística del euskera, se tomarán las medidas necesarias para resaltar el

euskera:

• **Kokapena:**

- Irakurketaren ibilbideari jarraiki, **euskara gaztelania baino lehentsuago** agertuko da. Hau da, testua goitik behera taxutzen denean, euskarazko testua goiko aldean egongo da eta.
- Testua **zutabeetan** antolaturik badago, **euskarazko testua ezkerrekoan** agertuko da.
- Ohiko komunikazioetan, **bi hizkuntzak orrialde berean agertzea** lehenetsiko da, hots, ez da orrialde batean euskarazko bertsioa jarriko eta beste batean gaztelaniazkoa, orri berean testu biak baizik.
- Bi hizkuntzak ezinbestean testu bereizietan agertu behar badira (iragarki-taula, kartel bereziak eta abar), **euskarazko testuak gaztelaniazkoak duen eskuragarritasun bera edo handiagoa izango du.**

• **Tipografia:**

- Erabiltzen diren **hizkien tamainan ezberdintasunik balego, euskarazko testuak hartuko luke tamainarik handiena.**
- Errotulazioan, karteletan eta antzekoetan, euskarazko testuak gaztelaniazkoaren tamaina bera edo handiagoa izango du.
- Ohiko idazkietan, zutabeetan antolatutako testuetan eta antzekoetan, berriz, maila bera izango dute.
- Bi hizkuntzen arteko berdintasuna

• **La ubicación:**

- Siguiendo el orden lógico de lectura, el **euskera aparecerá siempre en una ubicación anterior al castellano**. Es decir, cuando la disposición sea de verticalidad, el euskera se situará encima del castellano.
